



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

Lehen Hezkuntzako Gradua

2015/2016 ikasturtea

**LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO IKASLEEN AURREIDEIAK ETORKIZUNEKO
IKASKETEI ETA LANBIDE BOKAZIOEI BURUZ GENEROAREN IKUSPUNTUTIK**

Egilea: Ainhoa Urtiaga Gil

Zuzendaria: Teresa Nuño Angos

Leioa, 2016ko maiatzaren 30ean

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.	4
1.1. Emakumeen egoera gaur egun:.....	4
1.1.1. Emakumea eta gizona familian.....	5
1.1.2. Hezkuntza	5
1.1.3. Teknologia berriak eta komunikabideak	5
1.1.4. Lana	5
1.1.5. Giza eskubideak eta politika arloko erabakiak	6
1.2. Estereotipoak eta Rolak	7
1.2.1 Familia.....	7
1.2.2. Hedabideak	8
1.2.3. Literatura	8
1.2.4. Hizkuntza.....	8
1.3. Orientazioa eskolan	9
2. Metodologia.....	9
2.1. Helburuak	9
2.2. Hipotesiak.....	10
2.3. Ikerketa gauzatu den testuingurua	10
2.4. Ikerketaren parte-hartzaileak	11
2.5. Ikerketa diseinua.....	12
2.6. Ikerketa tresnak	13
3. Lanaren Garapena.....	15
4. Emaidzak eta ondorioak	16
4.1. Emaidzak	16
1 Atala	16
2 Atala	21
4.2. Ondorioak	23
5. Hobetzeko proposamena.....	25
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	27

ERANSKINAK	28
1. Eranskina. Galdera sorta.....	28
2. ERANSKINA. Horma-irudia	31
3. ERANSKINA. Lanbideen zerrenda.....	32

LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO IKASLEEN AURREIDEIAK ETORKIZUNEKO IKASKETEI ETA LANBIDE BOKAZIOEI BURUZ GENEROAREN IKUSPUNTUTIK

Ainhoa Urtiaga Gil

UPV/EHU

Lan honek, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek dituzten aurreideiak etorkizuneko ikasketei eta lanbide bokazioei buruzkoak ezagutu eta aztertzea generoaren ikuspuntutik izan du helburu nagusia. Honetaz gain, gai horien inguruan dituzten genero estereotipoak identifikatzea eta horiek apurtzeko zenbait proposamen egitea. Bi ikerketa tresna erabili dira, galdera sorta bat eta eztabaida-taldeak egiteko saioak sortu dira. Bertan ateratako emaitzen interpretazioetatik ondorioztatu daiteke aztertutako taldean aurkitu dela genero-estereotipoen presentzia ikasketei zein lanbideei dagokienez.

Lan bokazioak, ikasketak, generoa, lehen hezkuntza, aurreideak

El objetivo de este trabajo fue conocer y analizar la percepción que tiene un grupo de escolares de sexto curso de primaria, respecto a sus estudios y oficios del futuro, desde la perspectiva de género. Además, se buscó identificar los estereotipos que tienen respecto a esta temática y hacer una propuesta para romper con esos estereotipos. Para ello, se utilizaron dos herramientas de investigación, por un lado, un cuestionario y por otro, se realizaron tres grupos de discusión focalizada sobre el tema de las profesiones. De la interpretación de los resultados se podría deducir que en el colectivo investigado, están presentes los estereotipos de género respecto a los estudios y a los oficios.

Trabajo vocacional, estudios, genero, primaria, percepción

The aim of this work was to know and analyse the perception that students of six year of primary have in relation to the jobs and studies of the future, taking into account the gender point of view. Besides this, the work looked for the identifications of the students stereotypes related to the topic mentioned before and doing a proposal to break those stereotypes. For doing so, two kinds of tools were used, on one hand, a set of questions and on the other hand, some focused-discussion groups were made to carry out a debate. From the results it could be deduced that in the investigated group there were some gender stereotypes related to the jobs and studies.

Vocational work, studies, gender, primary, perception

SARRERA

Hezkidetzari buruzko ikerketak agerian jarri duenez Lehen hezkuntzako 3. zikloko ikasleen etorkizuneko ikasketei buruzko aurreideiak genero-estereotipoz kutsatuta izaten hasten dira adin horietan. Hori dela eta, lan honen xedea da Lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleek dituzten aurreideiak/ pertzepzioa etorkizuneko ikasketei eta lanbide bokazioei buruzkoak ezagutu eta aztertzea generoaren ikuspuntutik.

Horretarako, ikerketa tresna mota bi gauzatu dira, horietako bakoitzaren azalpena emanez eta egindako ikerketen emaitzen arteko konparaketa eginez. Horrez gain, ikerketen emaitzak oinarri hartuta, proposamen bat luzatzen da.

Gai hau, XXI. mendean, oraindik ere, gure gizartean, generoen arteko desberdintasuna nagusi delako aukeratu dut batik bat. Nahiz eta aurrera pausu garrantzitsuak eman diren berdintasunaren alde, desberdintasun ugari ikusten jarraitzen da, esaterako, familietan, hezkuntzan, lanean eta komunikabideetan. Baina, genero desberdintasun horiekin barneratuta pertsonak ez dira jaiotzen, ordea, manipulatu edo aldatu egiten ditu gizarteak. Manipulazio hori, hezkuntzan, literaturan, familian, hizkuntzan eta komunikabideetan ematen da, besteak beste. Horregatik, gizarte isla hori lehen hezkuntzako ikasgeletako haurrengan duen eragina jakitea interesgarria iruditzen zait. Modu horretan, etorkizunean, gure ikasgeletan proposamenak, zein esku-hartzeak plazaratu ahalko ditugu, gizarteak sortzen duen desberdintasun horri buelta ematen saiatuz.

Esan bezala, gure gizartea den bezalakoa izanda, aurreikus daiteke, ikerketa xume honetan parte hartzen duten ikasleei buruzko emaitzak ere ikuspegi hori izango duela, hau da, sexu-generoen arteko desberdintasunak nabariak izango direla.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.

1.1. Emakumeen egoera gaur egun:

Hasteko, munduan zehar emakumeen egoera zein den azaltzen da.

1.1.1. Emakumea eta gizona familian

Gaur egun, familietako ama asko lan-merkatuan daude, hala ere, mundu osoan zehar umeak hezteko erantzukizuna emakumeari egokitzen zaio oraindik. Gainera, emakumeek, etxeetan eta gizartean egiten dituzten ordaindu gabeko lanak aitortuagoak izaten hasiak dira. Horrez gain, seme-alabak dituzten eta bikoterik gabeko emakumeak, hots, guraso bakarreko familiak, gehienetan, ekonomikoki egoera txarragoan daude (Naciones Unidas, 2001).

1.1.2. Hezkuntza

Mundu mailan, zenbait herrialdeetako nekazal-guneetan, nesken eskolaratzea txikiagoa da eta mutilek neskek baino ikaskuntzan urte gehiago iraungitzen dute oraindik ere. Hala ere, aipatu beharra dago, emakumeen analfabetismoa jaitsi egin dela.

Hezkuntzarekin jarraituz, baina kasu honetan langileei dagokionez, goi-mailako jardueretan, emakumeak eskas ordezkatuta daude, nahiz eta lehen eta bigarren hezkuntzan emakumeen presentzia gizonena baino nabariagoa den (Naciones Unidas, 2001).

1.1.3. Teknologia berriak eta komunikabideak

Teknologia berriek erronka berriak dakartzate. Aldaketa horiek, erabileran eta informazioaren edukian eragina izango dute. Telebista, irrati, prentsa eta beste komunikazio motetan oso gutxitan dira emakumeak berrien protagonista. Horrez gain, emakumeen intereseko gaiak (emakumeen osasuna eta lana eta emakumeenganako indarkeria) ez dira, apenas, landuak izaten (Naciones Unidas, 2001).

Publizitatean ere, emakumeen eta gizonen irudi estereotipatua agertzen da; horrez gain, emakumearen edertasun idealizatua erakusten dute. Horren harira, publizitatean, emakumeen irudia beti erabiliak izan dira bi dimentsiotan nagusiki; batetik, etxeko andrea edo ama bezala eta beste alde batetik, objektu sexual gisa, hau da, xarmangarri, eraginkor eta etxeko zerbitzari bezala. Gainera, sarritan, gizonaren osagarri gisa agertzen dira, horretarako bere maitale, sari, apaingarri... bezala agertuz (García Fernández eta García Reyes, 2004).

1.1.4. Lana

Emakumeak, arlo publikoko lan munduan, geroz eta nabariagoak dira.

Lan autonomoak, lanaldi partzialak eta etxeko lanaldiak, lan munduan, emakumeen aukerak handitu

dituzte, baina, horiek segurtasun falta, prestakuntza falta eta diru-sarrera eskasekoak izaten dira.

Nahiz eta lan munduan emakumearen presentzia asko handitu den, oso zaila da lana, familiako erantzukizunekin uztartzea.

Langabeziak, emakumeei eragiten die, bereziki gazteei eta gizonen langabezia baino denbora luzeagokoak izaten dira.

Emakumeak, oraindik ere, lan munduan, behe mailako postuak eta okupazio mugatuak betetzen dituzte; autoritate eskaseko edo bat ere autoritaterik gabeko lan postuak izaten dituzte eta horrez gain, gizonen baino soldata txikiagoak jasotzen dituzte (Naciones Unidas, 2001).

Soldataren harira, esate baterako, Instituto Nacional de Estadistikak delakoak 2016an publikatutako datuetan ikusi daiteke nola Espainian, 2013an, lanaldi osoari dagokionez, emakumearen soldata, orduko 13,9 eurokoa zela eta gizonarena 16,1 eurokoa.

Eurostaten arabera, Europan, 2007an, 100 emakumetik, 86 emakume zerbitzuen sektorean kokatzen dira, 11 industrian eta hiru bakarrik, nekazaritzan. Gizonen kasuan, 100 gizonetik, 71 gizon zerbitzuen sektorean kokatzen dira, 27 industrian eta bi nekazaritzan. Lanbide desberdinen eremuan sakonduz, emakumea, gehien bat, gizarte zerbitzuko lanbideetan, osasun arloko lanbideetan, txikizkako merkataritzan eta enpresenganako zerbitzu arloko lanbideetan kokatzen direla ikusi daiteke. Gizonen kasuan, eraikuntza, administrazio publikoa, txikizkako merkataritza eta enpresenganako zerbitzu arloko lanbideak gailentzen dira.

1.1.5. Giza eskubideak eta politika arloko erabakiak

Estatu gehienek, Nazio Batuek (Naciones Unidas, 2001) emakumearenganako diskriminazioen inguruko ezabapen hitzarmena berretsi dute. Hitzarmen hori, hainbat estatuk onartutako tresna bat da, zeinek emakumeenganako betebeharrak batzuetara konprometitzen dituen. Bertan, gobernuek bete beharreko eskubide eta askatasun minimo batzuk ezartzen dira (Naciones Unidas, 2001).

Tratu txarrak eta bortxaketak, neskak diren ume eta emakume askorengan eragiten du mundu osoan zehar.

Nahiz eta generoen berdintasunerako deialdi asko egin izan diren, emakumeen errepresentazioa gobernuetan, alderdi politikoetan eta Nazio Batuetan ez da orekatua (Naciones Unidas, 2001).

1.2. Estereotipoak eta Rolak

Gaur egungo haurrei, hezkuntza sexistak eragindako giza diferentziak (biologikoak ez direnak), desberdintasun naturalak izango bailiran atxikitzen zaizkie; eta hor dago errakuntza. Estereotipoak, modak, legeak eta ohiturak baldintzatzen ditu. Sexua ez bezala, generoa ikasi egiten da, hezia izan daiteke, baita aldatua eta manipulatu izan ere. (Sánchez Corralejo eta Sánchez Garrido, 2008).

Gizartean, generoen desberdintasuneko manipulazioa zein, heziketa, arlo desberdinetan eman daiteke; hezkuntzan, literaturan, familian, hizkuntzan eta komunikabidean, esate baterako.

1.2.1 Familia

Esan bezala, familia oso garrantzitsua da baloreen transmisioan, eta horiek, familien itxaropenengatik, haurrak tratatzeko moduagatik eta gurasoen arteko harremanagatik transmititzen dira batez ere.

Jaio aurretik, familiek balore horien transmisioari ekiten diote. Familiak heziketa diferentzialerako prestatzen dira umearen sexuaren arabera, esaterako, logelaren prestakuntzan; hau kolore batekoa edo bestekoa izango da eta apaingarri batzuk edo beste batzuk izango ditu. Jostailuak ere desberdinak izango dira sexuaren arabera.

Lehengorik objektua erosten denetik, haurraren genero identitatea finkatzen ari da.

Bestetik, haurrak tratatzeko moduan desberdintasuna topatzen da. Harremana desberdina izaten da neskekiko zein mutilarekiko, gauza desberdinak baloratzen zaizkie, erabiltzen den hizkuntza ere desberdina da, batarenganako itxaropena bestearenganako desberdina da... Horrek, neskek etxea eta familia zaindu behar dutela, mutilek baino denbora libre gutxiago izan behar dutela eta familiaren zaintzak proiektu pertsonalak baino garrantzi gehiago duenaren ideia barneratzea eragiten du.

Izan ere, haurtzaroan pertsonalitatearen eraikuntza funtsezkoa gauzatuz doa. Neskatilek, txikitatik, genero rola barneratzen dituzte eta behe-mailako gizakiak izango bailiran hazten ikasten dutelako.

Mutikoak, berriz, goi-mailakoak izateko sinesmenean bilakatzen dira¹ (Nuño, 2016).

Azkenik, kontuan hartu beharra dago, umeei etxean ikusten dutena imitatzen dutela. Etxean ikusten diren harremanak, rola, irudiak... erreproduzitzen dituzte, modu horretan ustezko heziketa naturala gauzatuz, non, sexu bakoitzerako inposatutako rola barneratzen dituzten (Alfonso eta Aguado, 2012).

¹ Emakundek sortu duen 2016ko martxoaren 8ko kanpainak oso argi erakusten duenez:

<http://emakunde.blog.euskadi.eus/eu/2016/02/martxoaren-8ko-kanpainak-nesken-eta-mutilen-artean-desberdintasunak-eragiten-dituzten-mezuen-gainean-ohartaraziko-du/>

1.2.2. Hedabideak

Beste faktore garrantzitsu bat komunikabideak dira. Iragarki eta programen bidez sexu bakoitzerako rolak transmititzen dituzte eta haurrak inkontzienteki barneratzen dituzte, haien jarreran modu naturalean txertatuz.

Komunikabideetako bereizgarri garrantzitsuenetakoak hurrengoak dira: botere karguetan ez da emakumearen presentzia handirik agertzen, tradizionalki gizonen lanbideak izandakoetan ez da emakumerik ageri eta etxeko lana emakumearen esku agertzen da (Acuña, 2007).

1.2.3. Literatura

Ipuin tradizioaletan, pertsonaiak guztiz estereotipatuak daude. Mutilak, ausartak, indartsuak, inteligenteak eta heroiak izaten dira. Neskak, ordea, beldurtiak, onak, esanekoak, maitagarriak, sari bezala heroi edo printze bat dutenak eta abar.

Beraz, esan liteke, ipuin tradizionalak ere, aurreiritzi sozialak transmititzen edo mantentzen dituela, haurrek bertan agertzen diren pertsonaiak imitatzen dituztelarik (Alfonso eta Aguado, 2012).

1.2.4. Hizkuntza

Hizkuntzak ere paper garrantzitsu bat jokatzen du.

Gizarte bakoitzak bere baloreak eta arauak ditu. Horiek transmititzeko bide desberdinak erabiltzen dira, garrantzitsuenetarikoa hizkuntza izanik. Hizkuntzak dituen kontzeptu, zein gramatika arauen bidez baloreak transmititzen dira, eta hauen bidez sexismoa ere adierazi daiteke, esate baterako, hizkuntza erabilera sexista egiten denean, maskulinoa erabiliz bi sexuetara erreferentzia egin nahi denean. Horrek, emakumea ezkutatzea eragiten du, baita gutxiestea ere. Horiek, haurrak oso txikiak direnetik, hezkuntzaren bitartez, transmititzen eta barneratzen dira, inkontzienteki bada ere.

Gaztelania hizkuntzari dagokionez, egiten diren akats garrantzitsuenen artean, aurretik esan bezala, emakume zein gizonari erreferentzia egiterako orduan erabiltzen den genero gramatikal maskulinoa daukagu. Beste alde batetik, gizona, beti, aurkeztua izaten da erreferentzia eta ekintza subjektu gisa eta emakumea menpeko delarik. Azkenik, emakumezkoaren generoari esleitzen zaizkion baloreak eta jarrerak deskalifikatzeko erabiltzen dira, adibidez, “Emakume bat bezala negar egiten du eta ez da kapaza izan gizon bat bezala defenditzeko” (Alfonso eta Aguado, 2012).

1.3. Orientazioa eskolan

Hori guztia horrela izanda, arlo guzti horietan aldaketa bat egotearen garrantzia azpimarratzeaz gain, beharrezkoa da azpimarratzea, hezkuntzak paper garrantzitsu bat jokatzen duela baloreen transmisioan eta rol identitateen aldaketan. Izan ere, eskola haurtzaroaren eta nerabezaroaren, hezkuntza eragile garrantzitsuenetako da. Hala ere, eskolako heziketa ez sexistak, familiaren, gizartearen eta komunikabideen parte hartzea eskatzen du.

Baterako hezkuntzak, besteak beste, hurrengo hauek izan beharko lituzke kontuan Alfonso eta Aguadoren (2012, 14) arabera:

- Inor bereizten ez diren jokoak eta dinamikak sustatu, paper aldaketa praktikatu.
- Hurrei erakutsi jostailu guztiak erabiltzen, generoan pentsatu gabe.
- Irakasleak trebatu, eskolan, sexismoaren kontra lan egiteko.
- Gurasoei zuzendutako berdintasunerako tailerrak sustatu.
- Gustuko dituzten ikasketak edo lanbideak aukeratzeko, haurrak estimulatu.
- Eskolako material guztietan, genero ikuspegia txertatu.

Bestaldetik, honi gehitu behar zaio Espín Lópezek eta Rodríguez Morenok (1996, 28) proposatzen dutena:

- “Rolen urratze” kasuei babesa eta sustapena.
- Hezkuntza ikastegiko funtzionamenduaren aztertzea, sexismoa ezabatzeko, bai esparru kognitibo zein esparru afektibo eta jarrerazkoan.

2. Metodologia

Atal honetan, datuak biltzeko eta aztertzeko erabilitako prozedura azaltzen da. Horren barruan, ikerketaren helburuak, ikerketa gauzatu den testuingurua, ikerketan parte hartu dutenak eta datuak biltzeko erabili den prozesua, hipotesiekin batera aurkezten dira.

2.1. Helburuak

- 1- 6. mailako ikasle talde batek dituen aurreideiak/ pertzepzioa etorkizuneko ikasketei eta lanbide bokazioei buruzkoak antzematea, sexuaren arabera.
- 2- 6. mailako ikasle horiek etorkizuneko ikasketen lanbide bokazioen inguruan dituzten pertzepzioak, egungo genero estereotipo eta genero rolekin bat datozen edo ez ikustea.

3- 6 mailako ikasle horiek etorkizuneko ikasketei eta lanbide bokazioei buruz dituzten aurredeietan agerian dauden genero estereotipoak gutxitzeko zenbait proposamen egitea.

2.2. Hipotesiak

H1. Ikasgaiei dagokienez nesken artean gustukoaren ikasgaia Arte Hezkuntza da, mutilen artean, ordea, Gorputz Hezkuntza, beraz lanbideei dagokienez mutilek kirolarekin zerikusia duten lanbideak dituzte gustukoago eta neskek arlo artistikokoak.

H2. Mutilek besteen zaintza, heziketa eta estetika biltzen dituzten lanbideak ez dituzte gustuko, neskek, ordea, kirolarekin zerikusia dutenak.

H3. 20 urte barru, bai neskek bai mutilek haien burua, beste sexuko bikote batekin batera ikusten dute. Gainera, neska gehienek haien seme alaben zaintzaren arduradun eta etxekeko andre bezala ikusten dute haien burua, mutilek, ordea, astean zehar, aisia eta lagunekin egoteko denbora izango dutela ikusten dute haien burua, neska laguna zein emaztea, etxekeko eta zaintza lanez arduratuko litzatekeelako.

H4. Neskak, etxekeko lan eta beste pertsonen zaintzarekin lotutako jarduerak askotan edo noizbehinka burutzen dituzte, mutilek, ordea, ez dituzte jarduera horiek inoiz egiten.

2.3. Ikerketa gauzatu den testuingurua

Ikerketa Txurdinaga auzoko ikastola batean gauzatu da. Txurdinaga Bilboko auzo bat da, 18.000 biztanle ingurukoa, hala ere, orokorrean, ikastolan matrikulatutako ikasleak, Santutxu, Begoña, Otxarkoaga eta Txurdinaga auzokoak izaten dira. Ikasle kopuru anitzeko ikastola da. Gainera, ikastola, D eredukoa eta izaera kontzertatukoa da, beraz esan liteke, euskara giroko ikastola bat dela, hori bera bultzatzen duena, bizkaiera oinarri hartuta, eta euskal kultura suspertzen duena. Horri gehitu behar zaio, bertara hurreratzen diren familien profila euskalduna dela eta ez dagoela etorkin askorik.

Ikastolak duen beste helburuetako bat, Kristau gizatasunaren barruan ikasleak hezte da.

Maila sozio-ekonomikoari dagokionez, ikastolako ikasleen familiek, orokorrean, maila sozio-ekonomiko ertaina dute.

2.4. Ikerketaren parte-hartzaileak

Ikerketa hau, 6. mailako 20 ikasle talde batean eginda dago. Aipatu beharra dago, gela honetako ohiko ikasle kopurua 24 dela, baina ikerketa egiten hasteko unean 20 ikasle bakarrik zeudenez, horiekin aurrera jarraitzea erabaki zen. Parte-hartzaileen %50-a neskak dira eta beste %50-a mutilak. Hala ere, aipatu beharra dago, ikasleen artean, 20 ama eta 18 aita hartu direla kontuan, izan ere, ikasle batek ez du aitarik eta besteak ez du harremanik bere aitarekin.

Ikastolako familien maila sozio-ekonomikoa, aukeratutako laginaren kasuan mantendu egiten da, hau da, maila sozio-ekonomiko ertainekoak dira. Hori jakiteko, ikasleei, gurasoen lanbideei eta ikasketei buruz galdetu zitzaizen eta honako hauek dira gurasoen lanbideen datuak sexuaren arabera:

LANBIDEAK	AMA	AITA	GURASOAK
Osasun arlokoak	%5	%5,56	%5,26
Hezkuntza arlokoak	%10	%5,56	%7,89
Fabriketan	%5	%27,78	%15,79
Ekonomia arlokoak	%25	%11,1	%18,42
Ingeniaria/informatikoa	-	%22,2	%10,53
Zaintza lanak	%10	-	%5,26
Garbiketa	%10	-	%5,26
Dendari/ zerbitzari	%15	%11,1	%13,16
Gidari	-	%11,1	%5,26
Langabetuak	%10	-	%5,26
Bestelakoak	%10	%5,56	%7,89

1. Taula. Gurasoen lanbideak sexuaren arabera

1. taulan ikusi daitekeenez, guraso kopuru handienek ekonomia arloan (%18,42), fabriketan (%15,79) eta denda edo zerbitzuetan (%13,16) egiten dute lan. Sexuaren arabera, amen lanbideak, gehien bat, ekonomia arlokoak (%25) eta denda edo ostalaritza (%15) ingurukoak dira. Aiten kasuan, berriz, fabriketan (%27,78) eta ingeniaritza/ informatika arloan (%22,2) kokatzen dira dituzten lanbideak. Azken honetan, emakumearen presentzia nulua delarik.

Gurasoen ikasketeki dagokionez, hauek dira gurasoen ikasketen datuan generoaren arabera:

	AMA	AITA
Lehen Hezkuntza	-	-
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	3	4
Batxilergoa	2	2
Erdi mailako gradua	- Idazkari ikasketak - Laborategiko teknikak	- Elektrizitate (2) Administrazio -Iturgintza
Goi mailako gradua	- Administrazioa - Barneko diseinatzaile - Administrari laguntzaile	- Administrazioa - Programazio informatikoa - Mekanika - Elektrizitate
Unibertsitateko ikasketak	- Biologia (2) - Ekonomia eta enpresen kudeaketa - Irakaskuntza - Arkitektura teknikoa - Geologia - ADE - Merkatuen ikerketa eta teknikak - Filologia ingelesa	- Ingeniaritza (2) - Euskal filologia - Medikuntza
Bestelako ikasketak	- Lehenengo sorospenak	
GUZTIRA	20	18

2. Taula. Gurasoen ikasketak sexuaren arabera

2.taulan ikusi daitekeenez, emakumeak dira nagusi unibertsitate ikasketak dituztenak. Gizonen artean ordea, gehiengoak, goi mailako, zein erdi mailako ikasketak burutu dituzte. Unibertsitateko ikasketetan, emakumea zein gizonaren kasuan, aukera nahiko anitza da. Gizonen artean goi mailako eta erdi mailako ikasketetan, elektrikari/iturgin/mekanika, gailentzen dira.

2.5. Ikerketa diseinua

Ikerketa deskriptiboa izan da, izan ere, populazio/talde baten jarduera edo ezaugarriak deskribatzea bilatu da. Erabilitako metodologia mistoa izan da; kuantitatiboa, galdera itxi sorta bat eta kualitatiboa, galdera irekiak, eta eztabaida taldeak.

Ikerketaren diseinuari dagokionez, honako dimentsio hauek aukeratu dira sexu aldagaiaren arabera aztertzeko:

1- LHko 6. mailako ikasleen oinarrizko datuak eta euren gurasoen lanbide eta ikasketa maila.

2- LHko 6. mailako ikasleen lanbiderik gustukoena eta desatsegina.

3- LHko 6. mailako ikasleek, ikastolako ikasgai guztiekiko duten gustua.

4- LHko 6. mailako ikasleek, egunerokotasunean burutzen dituzten jardueren berri izatea.

5-LHko 5. mailako ikasleek etorkizunari begira dituzten nahiak edota asmoak ikasketa eta lanbideei dagokienez, generoaren ikuspegitik.

2.6. Ikerketa tresnak

Ikerketa bi fasetan gauzatu da.

Lehenik eta behin, galdera sorta bat diseinatu da. Galdera sorta (*1.eranskina*) horretan, ikasleek ez zekiten generoaren ikuspegitik ikertuak zirela, modu horretan haien erantzuna ez izatea ezere baldintzapean egotea bilatu da. Galdera sorta horretan galdera edo ariketa desberdinak proposatzen dira, galdera batzuk irekiak (marrazki bat egin, idazmentxo bat...) eta besteak itxiagoak izan dira (gurasoen lanbidea, ikasketak, ikasgaiak gustuaren arabera sailkatzea...). Hasteko, haien egoera sozio-ekonomikoa eta sexuaren araberako gurasoen ikasketa maila jakiteko asmoarekin, bi galdera proposatzen dira.

Gurasoen/ tutoreen lanbideak

Gurasoen ikasketak

Ondorengo galderak ikasleengan zentratzen dira eta ildo beretik jarraituz, hau da, generoaren ikuspegia oinarritzat hartuz, gaur egun dituzten ikasgaiak zenbaki bidez baloratzea eskatzen zaie, gustu pertsonalaren arabera.

Gero, lanaren helburuetako bat oinarri hartuta, haien etorkizuneko lanbideen inguruan galdetzen zaie.

Zein lanbide izan nahi dut nagusitzen naizenean?

Galdera honetan, hiru gustukoenak eta hiru desatseginenak aukeratu behar dituzte.

Ostean, besteak beste, ikasleek etorkizuneko, lanbideei, etxeko lanei eta familiari ematen dieten garrantzia eta horren inguruan dituzten aurre ideiak jakiteko asmoz, 20 urte barru haien egun arrunt bat deskribatzea proposatzen zaie, irudi batekin batera.

Fase honekin amaitzeko, zein maiztasunekin egiten dituzten eguneroko jarduera batzuk galdetzen zaie, jarduera horiek ustezko genero estereotipoekin lotzen direnak dira, genero ikuspegitik aztertzeko asmoarekin.

Bigarren fasea, eztabaida taldeen bidezko metodologia kualitatiboa erabiliz burutu da. Eztabaida-taldeen estrategiari esker, aktoreen iritzi, balorazio eta jarrerak ezagutu daitezke. Talde hauek, bereziki baliotsuak gertatzen dira: kontrajarriak diren pertzepzio eta jarrerak alderatzeko hauei buruzko azterketa, eztabaida eta hausnarketa bultzatzeko beste modu batean nekez aurkituko ziren iritzi, uste, estereotipo edo diskriminazio jarrerak agerian uzteko. Jarraitutako prozedura eztabaida taldeak antolatzeko honako hau izan da: ikasleak klasetik atera egin dira, 3 taldetan banaturik. Talde bat, neskek soilik osatu dute, bestea mutilek bakarrik eta azken taldea, mistoa. Aipatu beharra dago, taldeak lehenengo galdetegian lortutako emaitzen arabera sortu direla. Talde mistoa sortzeko, genero aldetik lanbide estereotipatuena aukeratutako mutilak eta lanbide estereotipatuetatik gehien aldentzen diren neskak batu dira, ondoren, gelditzen diren neskak talde bat sortzen dutelarik eta gainerako mutilek beste bat. Taldekatze horien bidez, erantzun eta eztabaida mota desberdinak bilatzen dira.

Fikziodun hiri bat eraikitzea proposatu zaie, horretarako horma-irudi bat (2. *eranskina*) aurkezten zaielarik. Horma-irudi horretan, hiri baten egon ohi diren espazio/zerbitzu desberdinak agertzen dira, esaterako, ile apaindegia, supermerkatua, taberna, ospitalea ... Horrekin batera, hiri horretan aurkitu daitezkeen hainbat lanbideren zerrenda (3. *eranskina*) proposatu zaie. Lanbideen aukeraketa hainbat irizpideren arabera gauzatu da. Hasteko, sektore desberdinetako lanbideak egotea bilatu izan da, eta ondoren, hiri batek izan ohi duen ekipamendua kontuan izanik beste hainbat lanbide aukeratu izan dira. Hiri horretan, ikasle talde hori zen biztanle bakarra eta beraz, lanbideak haien artean banatu behar zituzten, bi baldintza kontuan izanik, alde batetik, ikasle bakoitzak, gehienez, bi lanbide izan ahal zituen eta beste aldetik, banatu gabeko lanbideak bete gabe geratzen ziren eta ondorioz, lanbide horietako egin beharrak, ez zituen inork burutuko. Egindako aukeraketaren zergatia azaldu behar dute.

Fase honen helburu komun bat, zein lanbideri ematen dioten garrantzi gehien aztertzea da, beraz, gainerako lanbideak zergatik ez diren izan aukeratuak ere galdetu zaie. Ikerketa hau burutzean ez da grabaziorik egin, izan ere, horretarako baimena ez zegoen. Beraz, datuak, ikerlariak batu ditu momentuan bertan.

Taldekatzearen arabera beste helburu batzuk zehaztu dira:

- Talde mistoaren kasuan, lanbideak banatzerakoan sortzen ziren eztabaidak eta jarrerak aztertu dira. Baita, zein lanbide egokitu dioten sexu bakoitzari ikusi ere. Taldekatze honekin espero zena hona hau izan da: Nahiz eta neskek ez duten arazorik garbitzaile/ile-apaintzaile lanbideak aukeratzeko, eztabaida sortuko da ez dutelako onartuko mutilen aurre ideiak lanbide horien

estereotipoekiko.

- Mutilen taldearen eta nesken taldearen kasuan, genero bakoitzari zein lanbide mota egokitu zioten aztertu da. Gainera, aukeraketan zehar egin diren iruzkinak eta sortu diren eztabaidak aztertu dira.

Kasu honetan, nesken taldearen eztabaidaren espektatiba lanbideak banatzerako orduan duten erraztasunean zentratzen da. Mutilei dagokionez, aurre ikusten zen ez zuela inork garbitzaile, irakasle edo ile-apaintzaile izan nahi.

Beraz, laburbilduz, ikasleen artean ematen den eztabaida eta ondoren aukeraketa justifikatzeko ematen duten azalpena izan dira aztertuak.

3. Lanaren Garapena

Ikerketa egiten, hasteko, gai honen inguruko bibliografia arakatu zen, esparru teorikoa eta kontzeptuala, helburuak eta lanaren nondik norakoak zehazteko. Hori guztia kontuan izanda, alderdi metodologikoaren ekin zaio, ikerketa diseinatuz, bi ataletan banatzeko (ikus 2.6 atala).

Hori baino lehen, egin dena praktikan jarri ahal izateko, praktikak burutu ditudan ikastolara hurbildu eta ikasketa buruarekin kontaktuan jarri nintzen, lanaren nondik norakoak azaltzeko eta praktikan jarriko zena helaraziz, modu horretan, praktikaldia burutu nahi nuen maila adierazi ondoren, ikerketa erraztasunez egin da. Behin praktikak hasita, ikasketa buruari eta ikasleei ikerketa gauzatzeko baimen orria pasatu zaie, sinatu zezaten, prest egonez gero. Ostean, gurasoen baimena jasota zegoela eta irakaslearekin horrela erabakita, klaseko egun baten, lehenengo galde-sorta ikasleei pasatu zaie ordu beteko saio batean. Ikasleei ez zaie zehaztasun handirik eman ikerketaren inguruan, erantzunak baldintzatuta egon ez zitezen. Ondoren, galderaz - galdera azaldu zitzairen bertan egin beharrekoa. Behin horrekin amaituta, bigarren zatia diseinatzeari ekin zaio. Bigarren zatia, eztabaida taldeen bidezko metodologia kualitatiboan oinarritu da eta talde desberdinak klasetik aterata burutu da (nesken taldea, mutilen taldea eta talde mistoa).

Aurretik aipatu bezala, hiri baten horma-irudi bat sortu zen horretarako eta eztabaida momentuan, horma-irudia aurkeztu zaie, proposatutako lanbideen zerrendarekin batera.

4. Emaitzak eta ondorioak

4.1. Emaitzak

Atal honetan, galdetegiaren eta eztabaidaren bidez lortutako emaitzak aztertzen dira, LHko 6. mailako talde baten 20 ikasleren kasua hartuta (%50 neskek). Ikasle kopurua txikia izanik, emaitzek ikerketa honekiko erakusten duten joerak aztertu dira, orokortzeko inolako asmorik gabe. Emaitzen antolaketa bi ataletan banatua dago, izan ere, ikerketa bi zatitan banatuta burutu da, beraz, atal bakoitza ikerketaren zati bakoitzari dagokio.

1 Atala

Lehengo atal honen helburu nagusia 6. mailako ikasleek, etorkizuneko lanbide bokazioei eta ikasketei buruz dituzten aurreiritziak ezagutzea da, haien bizitzako eta egunerokotasuneko hainbat jarduera ezagutzuz eta horrek denak duen garrantzia generoaren ikuspuntutik aztertzea nahi da. Orain, ikasleek galde-sortari emandako erantzunen emaitzak azaltzen dira, egindako galdera bakoitzaren arabera

- 1- *Atsegin dituzu honako ikasgai hauek? Ordena itzazu 0tik 10era. 0k esan nahi du ez duzula batere gustuko eta 10ek oso gustuko duzula.*

	MUTILA	Bataz bestekoa	NESKA	Bataz bestekoa
Arte Hezkuntza	9/10/9/7/8/5/10/6/9/9	8,2	6/7/10/7/10/7/9/8/10/9	8,3
Gorputz Hezkuntza	10/10/10/9/10/10/10/8 /10/10	9,7	7/8/10/10/8/10/10/10/ 10/10	9,3
Balioak/erlijioa	5/5/8/5/3/0/4/5/5/8	4,8	8/2/9/2/7/0/8/7/8/5	5,6
Euskara eta Euskal Literatura	6/7/7/3/7/0/8/6/7/9	6	10/4/7/5/7/6/6/10/8/6	6,9
Gaztelania eta Literatura	7/6/7/3/7/10/9/9/8/8	7,4	10/6/7/5/10/5/6/10/8/7	7,4
Atzerriko Hizkuntza	5/1/7/2/8/10/8/6/7/8	6,3	7/3/6/2/8/4/3/6/7/4	5
Matematika	3/10/8/4/10/0/5/10/8/7	6,5	2/1/3/6/5/1/4/8/8/3	4,1
Ingurune	8/2/7/7/9/10/10/7/9/8	7,7	1/5/5/5/6/3/5/7/8/8	5,3

3. taula. *Ikasgaien gustuaren arabera balorazioa sexuaren arabera*

3. taulan ikusi daitekeenez, bai mutilen eta baita nesken artean gustukoen ikasgai Gorputz Hezkuntza da (9,7/9,3). Hala ere, bi sexuen kasuan, Arte Hezkuntzak kalifikazio oso ona jaso du, bigarren gelditzen delarik bi kasuetan. Mutilen artean Balioak/Erljio dira gorrotatuen (4,8), nesken artean ordea, nahiz eta azken ikasgai horiek ez duten kalifikazio ona jaso (5,6), Matematika dute gorrotoen(4,1). Aipagarria da, Ingurune eta Matematikan balorazioen desberdintasuna, bi kasuetan mutilek balioa handiago ematen diete bi ikasgai horiei, bi kasuetan, balio diferentzia 2,4 delarik. Azkenik, Gaztelania eta Literaturari, bai neskek bai mutilek, balio berdinak eskaini diote (7,4).

2- Zein lanbide izan nahi dut nagusitzen naizenean? Aukeratu hiru gustukoena eta hiru desatseginena eta ordenatu.

	NESKA		MUTILA	
	Gustukoena	Desatseginena	Gustukoena	Desatseginena
Osasun arlokoak (pertsonek/ animaliak)	6	3	1	8
Hezkuntza arlokoak	7	0	0	0
Zientzialari/ingeniari/arkitekto	0	4	4	5
Artista	8	1	1	1
Polizia/Suhiltzaile/Kriminologoa	2	0	4	0
Abokatu/ enpresaria	1	4	3	0
Mekanikoa/elektrikaria	0	3	0	5
Kirol arlokoa	1	0	9	0
Informatika arlokoak	1	0	4	0
Kazetari/filologoa/ idazlea	1	2	0	2
Historialaria	0	3	0	1
Matematikaria	0	4	1	4
Ile apantzailea	3	1	0	0
Nekazaria	0	2	2	1
Turismo gidaria	0	1	1	0
Dendaria	0	2	0	3

4. taula. Etorkizuneko lanbideak

Laugarren taula honetan, ikasleek gustuko dituzten hiru lanbide aukeratu dituzte eta gustuko ez dituzten beste hiru. Mutilen artean, gustuko lanbidea kirol arloan kokatzen da (9 mutilek aukeratzen dute). Nesken artean, arlo artistikoko lanbideak dituzte gustuko, 8 neskek aukeratua izanik. Hala ere, nesken kasuan, aipagarri da hezkuntza arloko (7) eta osasun arloko (6) lanbideek jasotako jarraipena.

Desatseginen artean, mutilen artean, osasun arlokoak gailentzen dira (8), horri, zientzialari, ingeniari, arkitekto, mekaniko eta elektrikariak jarraitzen diotelarik (5). Nesken kasuan, desatseginen kopurua nahiko sakabanatuta dago, zientzialari, ingeniari, arkitekto, abokatu, enpresari eta matematikari (4). Aipatzekoa da matematika lanbideak bozka negatibo kopuru berdina (4 bozka negatibo) jaso duela bi sexuen kasuan.

3- *IDAZLANA: deskribatu zure burua 20 urte barru, horretarako zure egun arrunt bat kontatuz, esnatzetik berriro ere lokartu arte. Nola biziko zara? Zein da, gaur egun, zure proiektua?*

Lanbideei dagokionez, hauek dira lortu diren datuak:

	MUTILA	NESKA
Kirolaria	5	0
Abokatua	1	0
Irakaslea	0	2
Dantzaria	0	1
Zerbitzaria/dendaria	0	2
Informatikoa	3	0
Anestesista	0	1
Albaitaria	0	2
Kriminologoa	0	1
Lanik ez	1	1
Guztira	10	10


5. taula. 20 urte barruko lanbideak sexuaren arabera

Hirugarren galdera honetan, haien etorkizuneko egun baten inguruko idazlan bat idatzi dute eta haien erantzunak kontuan izanda, lau ataletan kodifikatuak izan dira emaitzak.

5. taulan, 20 urte barru burutzen arituko diren lanbideen datuak erakusten dutenez, mutilen erdiak haien burua kirol munduko lanbide batean ikusten dute eta haietariko inork ez du irudikatzen bere etorkizuna irakaslea, dantzaria, zerbitzari/dendari lanbideetan. Nesken kasuan, ordea, denetarik aurkitu daitezke, albaitari, irakasle, zein, dendari, besteak beste. Baina aipagarria da neska batek ere ez du irudikatu bere etorkizuneko lanbidea informatika, zuzenbidean edo kirol esparruetan,

Ondorengo atalean, 1. grafikoan, alegia, norekin bizi diren ikertzen da. Nesken %60ak bikotearekin bizitzen ikusten dute bere burua, %30ak bakarrik eta %10ak beste norbaitekin. Mutilei dagokienez, erdiak, hau da, %50ak ez du aipatu bikoterik bere idazlanean eta beste %50ek, bere burua, bikotearekin bizitzen ikusten dute.


Norekin biziko diren aipatzerakoan, hauek dira jaso diren datuak:



1. Grafikoa. 20 urte barru norekin bizi sexuaren arabera

Horren ostean, 2.grafikoan, ordurako haien bizitzan seme-alabarik irudikatzen duten aztertzen da. Mutilen kasuan, gehiengoak, hau da, %70ak, ez du seme-alabarik aipatzen idazlanean. Nesken kasuan ordea, %60ak seme-alabak aipatzen ditu.

Seme-alabak aipatu izanaren datuak hurrengokoak dira:



2. Grafikoa. 20 urte barru seme-alabak sexuaren arabera

Amaitzeko, 6. taulan, etxeko lanen parte hartzea aztertu da. 9 mutilek eta 10 neskek, idazlanean, etxeko lanen baten partaidetza aipatzen dute. Hala ere, aipatu beharra dago mutilen artean, batek, bere emaztea jartzen zuela etxeko andre bezala.

Eguneroko bizitzako etxeko lanen eta zaintzaren antolaketa nolakoa den aipatzea ateratakoak:

	MUTILA	NESKA
Etxeko lanak bai	9	10
Etxeko lanak ez	1	0

6. Taula. 20 urte barru etxeko lanen antolaketa sexuaren arabera

4- Zein maiztasunekin egiten dituzu ondoko jarduerak?

Laugarren eta azken galdera honetan, egunerokotasunean zein maitasunekin burutzen zituzten aurreko jarduera horiek galdetu zaie.

	Inoiz ez		Noizbehinka		Askotan		Ez dakit	
	Mutila	Neska	Mutila	Neska	Mutila	Neska	Mutila	Neska
Progr. Infor. instalatu	%70	%50	%20	%50	%10	0	0	0
Sare sozia. Ibili	%50	%30	%20	%40	%30	0	0	0
Otordua prestatu	%70	%20	%30	%80	0	0	0	0
Egunk./aldiz. irakurri	%70	%40	%20	%60	%10	0	0	0
Botoi bat josi	%100	%80	0	%20	0	0	0	0
Arropa lisatu	%70	%60	%20	%40	%10	0	0	0
Etxe-tresnak/jostailu elek./irratia konpondu	%60	%80	%10	%20	%30	0	0	0
Eguraldia aztertu	%80	%40	%10	%60	%10	0	0	0
Ohea egin	%40	0	%50	%20	%10	%80	0	0
Xurgatzaile/ erratza erabil.	%40	%20	%60	%70	0	%10	0	
Ume txikiak zaindu	%80	%70	%10	%20	%10	%10	0	0
Etxeko hondakinak gaika sailkatu eta dagokien zakarrontzian bota	%30	%10	0	%20	%70	%70	0	0

7. taula. Egunerokotasuneko jarduerak.

7. taulan honetan ikusi daiteke, neskek, gehien egiten duten jarduera ohea egite dela, noizbehinka edo askotan %100ak egiten dutelarik. Otordua prestatu, xurgatzailea pasatu eta etxeko hondakinak gaika sailkatu eta dagokion zakarrontzian botatzea ere, nesken %80-%90ek askotan edo noizbehinka egiten dute. Botoi bat josi eta etxeko tresnak/jostailu elktronikoak/irratia eta abar konpondu ordea, nesken %80ak ez du inoiz egiten.

Mutilen artean, gehiengoak (%70), noizbehinka edo askotan egiten duten ekintza bakarra etxeko hondakinak gaika sailkatu eta dagokien zakarrontzia botatzea da. Botoia josi ez du inor, inoiz egiten eta eguraldia aztertu eta ume txikiak zaindu, bi kasuetan, %80ak ez du inoiz egiten.

2 Atala

Bigarren atal honen helburu nagusia 6. mailako ikasleek, etorkizuneko lanbide bokazioei eta buruz dituzten aurreiritziak ezagutzea da, sexuaren arabera, lanbideak banatzerakoan simulazio egoera baten testuinguruan. Orain, ikasleek eztabaida desberdinetan agertutako iruzkinak eta erantzunen emaitzak azaltzen dira. Aipatu beharra dago, ez dela transkripziorik egin, aurretik aipatu bezala, ez zegoelako haurrak grabatzeko baimenik.

Hasteko, talde mistoan aterako erantzunak aztertzen dira:

Hasi baino lehen aipatu beharra dago talde hau dela gehien luzatu dena aukeraketan eta eztabaida gehien sortu zuen taldea izan da. Hasieratik mutilak alde batean eta neskek bestean kokatu dira eta orokorrean, sexu berekoak, haien artean ados zeuden iritsi guztietan. Gainera, neskek eraman zuten egin beharrekoaren antolaketa guztia. Hasteko, emandako lanbideen garrantziaz hausnartzea litzatekeela egokiena iruditu zitzaien eta zerrendan banan-banan komentatu zituzten lanbide guztiak. Hauek dira sortu ziren hainbat komentario:

Mutilak:

- Kirol monitoreak beharrezkoa da.
- Ile apaintzailea ez da beharrezkoa.
- Dendaria beharrezkoa da bizitzeko, beharrezkoak diren produktuak saltzen dituztelako.
- Antzokia ez da beharrezkoa, artistak ez direlako beharrezkoak.
- Nekazariak beharrezkoak dira.
- Kazetariak beharrezkoak dira telebista ikusteko (futbolarekin lotu dute).
- Elektrikaria ere beharrezkoa da
- Zientzialaria zertarako?

Neskak:

- Ez dugu uste kirol monitoreak beharrezkoa denik.
- Nekazariak ez dira beharrezkoak
- Zientzialaria beharrezkoa da.

(gainerako komentarioetan ados zeuden)

Behin zein lanbideri emango zioten garrantzi gehiago aukeratuta, lanbideak banatzeari ekin diote.

Mutil batek medikua aukeratu du hasieratik eta ez du inork eztabaidatu. Elektrikaria eta polizia mutilek izan behar zutelako argi dute denek. Polizia lanbidea mutil batek hartu zuen baina elektrikaria ez zuen inork nahi eta neska batek hartu zuen. Ondoren, neskek esan zuten, nekazariak mutilek izan behar

zutela, baina hauek ados ez zeudenez eta ez zuenez inork nahi, neska batek aukeratu zuen lanbide hori. Horren ostean, garbitzailea ez zuen inork izan nahi eta azkenik, neska batek hartu zuen lanbide hori. Orokorrean neskak edozein lanbiderekin konformatzen ziren, mutilak ordea, zorrotzagoak agertu ziren aukeratzeko orduan.

Azkenik, aipatu beharra dago, lanbide batzuk aukeratzeko orduan, asko, gurasoen lanbideagatik gidatu zirela.

Azkenean, irakasle, garbitzaile, dendari, nekazari, zientzialari eta elektrikari lanbideak neskek hautatu zituzten eta informatikari, mediku, kazetari, ekonomialari, gidari eta polizi lanbideak mutilei egokitu zitzairen, ile-apaintzaile, abokatu, artista kirol monitore lanbideak alde batera utzi zituztelarik, bizitzeko beharrezkoa ez zirela arrazoituz.

Nesken taldearen kasuan, beharrezkoak diren lanbideak aukeratzeko hasi beharrean, lanbideak banatzen hasi ziren, hasieratik.

Irakaslea, garbitzailea, kirol monitorea, dendaria eta ile apaintzailea banatzeko orduan ez zuten inolako arazorik izan, norbaitek lanbidea aukeratu nahi izan zuen eta besteek onartu egin zioten.

Artista hiruk izan nahi zuten arren, bateri egokitu zioten, eztabaidatu gabe.

Polizia lanbidea banatzeko orduan, beharrezkoa ikusi dutenez gero, pertsona batek bere burua eskaini du.

Berdina gertatu da nekazariarekin. Elektrikariari dagokionez, ez zuen inork nahi baina hala ere beharrezkoa dela ikusita, neska batek bere burua eskaini du.

Informatikaria eta zientzialaria ez zuen inork nahi eta aukeratu gabe utzi dituzte.

Ikasle batek baino gehiago gurasoen lanbideetan oinarrituta aukeratu dituzte lanbideak.

Nesken taldean ez da inolako arazorik sortu lanbideak banatzeko orduan, ondo moldatu dira eta eztabaida gutxi sortu da.

Mutilen taldearen kasuan, antolatzea kostatu zaie. Kasu honetan, zerrenda jarraitu beharrean, banan-banan joan ziren zer izan nahi zuten aukeratzeko. Abokatu eta medikua lehenengoak izan dira aukeratuak, kobratzen den diru kopurua jarri zuten arrazoi moduan.

Hurrengo aukeratu izaten artista izan da, modu horretan, haien hirian entretenituta egongo direla arrazoituz. Ondoren, polizia eta gidaria. Ekonomialaria bik nahi izan dute, baina eztabaidatu gabe, batek besteari eskaini dio. Ostean, irakaslea hautatu dute, arrazoituz, ikasten ez bada, gainerako lanbideak ezin direla burutu. Gero, garbitzailea hautatu dute (beti ere kale garbiketara pentsatzen). Kirol

monitorea ere bik izan nahi dute baina azkenean batek aukeratu du.

Nekazaria, kazetaria eta zientzialaria hautatzeko orduan ez da inolako arazorik egon.

Nahiz eta hasieran ile apaintzailea ez duten nahi aukeratu, azkenean beharrekoa ikusi dute eta ikasle batek kirol monitorearen ordeztatu zuen. Beste ikasle batek, azken hau hartu eta dendaria alde batera utzi du, arrazoituz, gaur egun internet bidez erosi dezakegula.

Eztabaidatu eta gero, azkenik kirol monitorea hautatutako ikasleak, alde batera utzi du lanbide hori eta garrantzi gehiago eman dio dendariari, norberak korrika egin zezakeela azalduz.

Batzuk gurasoen lanbidea kontuan hartuz aukeratu dituzte lanbidea.

4.2. Ondorioak

Aurreko emaitzen interpretazioetatik eta lanaren hipotesietatik abiatuz honako hau ondorioztatu daiteke, hipotesien arabera sailkatuta:

H1. Ikasgaiei dagokienez nesken artean gustukoena ikasgaia Arte Hezkuntza da, mutilen artean, ordea, Gorputz Hezkuntza, beraz lanbideei dagokienez mutilek kirolarekin zerikusia duten lanbideak dituzte gustukoago eta neskek arlo artistikokoak.

Hipotesi hau ez da guztiz betetzen. Nahiz eta mutilen kasuan argi ikusten den Gorputz Hezkuntza izango dela gustukoena eta horrela izan den, nesken kasuan, ez da Arte Hezkuntza izan gustukoena, nahiz eta azken horrek ez duen balio baxurik jaso (8,3). Izan ere, nesken kasuan ere Gorputz Hezkuntza izan da baloratuena. Lanbideei dagokionez, aurreikusi bezala, mutilen lanbide gustukoena kirol arloan kokatzen da. Nesken artean ere, hipotesietan planteatutakoa baieztatu da, hau da, arlo artistikoko lanbideak dituzte gustukoena. Hala ere, aipagarri da hezkuntza arloko eta osasun arloko lanbideek jasotako arreta. Emakumeen kasuan, horrek, nolabait, indartu egiten du Eurostateko, 2007. urtean eginiko ikerketak emaitzak, izan ere, horren arabera, Europan, emakumeen lanbide eremu okupatuena artean, gizarte zerbitzuko lanbideak eta osasun arloko lanbideak kokatzen dira, besteak beste.

Gainera, aipatzekoa da ere, Arte Hezkuntza ikasgaia oso ondo baloratua izan dela nesken artean (8,3) eta gero, lanbideen artean arlo artistikoko lanbideak izan direla atseginenak.

Mutilen kasuan ere, Gorputz Hezkuntza ikasgaia izanda hoberen baloratua (9,7), eta ondoren, lanbideen artean kirol arlokoak gailentzen dira.

H2. Mutilek besteen zaintza, heziketa eta estetika biltzen dituzten lanbideak ez dituzte gustuko, neskek, ordea, kirolarekin zerikusia dutenak.

Desatseginen artean, mutilen artean, besteen zaintza, heziketa eta estetika biltzen zituzten lanbideak izango zirela desatseginenak aurreikusten zen eta hein batean, esan bezala bete da, izan ere, osasun arloko lanbideak dira desatseginenak haientzat (8). Nesken artean ordea, kirol arloko lanbideak desatseginenak izango zirela aurreikusten bazen ere, bestelako hainbat lanbide izan dira aukeratuak nesken artean, esaterako, ingeniari, enpresari, matematikari eta zientzialari, besteak beste.

Nesken artean ikusi daiteke, matematikari lanbidea bozka negatibo gehien jaso dituenetarikoa izan dela, ondoren, ikasgaien gustuen inguruan galdetzean, matematika ere izan dela balio eskasena jaso duena (4,1). Mutilen kasuan, lanbide desatseginenak ez datoz bat ikasgai desatseginekin.

H3. 20 urte barru, bai neskek bai mutilek haien burua, beste sexuko bikote batekin batera ikusten dute. Gainera, neska gehienek haien seme alaben zaintzaren arduradun eta etxeko andre bezala ikusten dute haien burua, mutilek, ordea, astean zehar, aisia eta lagunekin egoteko denbora izango dute, neska laguna zein emaztea, etxeko eta zaintza lanez arduratuko litzatekeelako.

Hipotesietan, bai neskek eta bai mutilek haien burua, beste sexuko pertsona batekin batera ikusten zutela aurreikusten zen, baina mutilen kasuan, erdiak bere burua bakarrik ikusten du. Nesken kasuan hipotesi hori baieztatu egin da, izan ere, hiruk bakarrik ikusten dute haien burua bakarrik, beste batek lagunekin eta gainerako seiak bikotearekin. Aipatutako azken datu hau, nesken %60a bikotearekin ikusten dutela haien burua, alegia eta nesken %60ak seme alabak aipatzen dituztenaren datua kontuan izanda, ondorioztatu daiteke, neskek idealizatuagoa (maitasun eta amatasun erromantikoaren mitoa) dutela, orokorrean, haien etorkizuna. Azkenik, aurreikuspenen kontra, bai mutilek (9) eta bai neskek (10), idazlanean, etxeko lanen baten partaidetza aipatzen dute.

H4. Neskak, etxeko lan eta beste pertsonen zaintzarekin lotutako jarduerak askotan edo noizbehinka burutzen dituzte, mutilek, ordea, ez dituzte jarduera horiek inoiz egiten.

Hipotesietan aurreikusten zen, neskak, etxeko lan eta beste pertsonen zaintzarekin lotutako jarduerak askotan edo noizbehinka burutzen zituztela, baina hau ez da guztiz betetzen; besteen zaintza esaterako %30ek bakarrik egiten dute noizbehinka edo askotan. Etxeko lanei dagokionez, ohea egin, otordua prestatu edo xurgatzailea pasatu gehiengoak, noizbehinka edo askotan egiten du.

Mutilen kasuan, pentsatu bezala, besteen zaintza, gehiengoak ez du inoiz ere egiten (%80) eta etxeko lanei dagokionez, ez dute ohiturarik hauetan aritzeko, besteak beste, otordu prestatu eta arropa lisatu direlarik mutilek inoiz ez (%70) egiten dituzten ekintzarik nagusienak.

Hemen, islatua ikusten da, gaur egungo egoera, emakume askok oraindik ere, etxeetan lan egiten baitute, izan ere, marko teorikoan aipatu bezala, nahiz eta lan munduan emakumearen presentzia asko handitu den. oso zaila da lana, familiako erantzukizunekin uztartzea.

5. Hobetzeko proposamena

Lehenik eta behin, egindako ikerketa honek zenbait ahultasun dauzkala aitortu behar da, hala nola, oso ikasle kopuru txikia aztertu dela, hain zuzen ere, hamar neska eta hamar mutil, baina kasutzat ikertu daiteke nahiz eta datu batzuk kuantitatiboak baino ez izan. Halaber, aztertutako lagina: eskola eta talde bakar batean eginda izan da eta ondorioz, emaitzak ez dute jendartearen isla zehatz bat izan nahi. Beraz, hori hobetzeko ikastola desberdinetako zenbait eskola ezberdinetan aztertzea litzateke aproposena.

Atera diren emaitzak kontuan izanda, haurren heziketan, aurrerakuntza asko egin behar direla ondorioztatzen da. Nahiz eta lan honen helburua lanbideetan eta ikasketetan zentratzen den, horrekiko duten pertzepzioa aldatzeko errotik hartu behar da arazoa, hezkuntza ez sexista sortzen hasiz, haurraren lehenengo urteetatik. Horretarako, lehenik eta behin, familiaren, gizartearen, komunikabideen eta eskolaren lan bateratua ezinbestekoa da. Gainera, nire aburuz, betarako hezkuntzan oinarritutako eskola sortu behar da, hurrengo oinarriak izango lituzkeena (AA.AA, 2014)

- Eskolan, pertsona guztiek, ikasten diren edukietan zein, harreman pertsonalen zaintzan, berdintasun egon daiten lan egiten dute.
- Espazioak (ikasgelak, patioa, gimnasioa, laborategia, liburutegia...) eskola osatzen duen orok disfrutatu ditzake, inor beste inoren gainetik egon gabe.
- Eskolak, ikasleei, ikasketak aukeratzen laguntzen die, ondoren, pertsona bakoitzaren gustuen arabera lanbideak aukeratu ahal izateko, lanbide guztiak emakumeek, zein gizonen burutu ahal dituztela ikusaraziz.
- Bai irakaslearen eta bai ikaslearen, ahozko, zein idatzizko adierazpenak zaintzen dira, klasean, hizkuntza sexista zuzenduz.

- Ikasgai eta eduki desberdinetako liburuetan, emakumeak duen presentzia eskasaz konturatzen da eta gizonaren maila berdinean jartzen du, ikusgarri eginez.
- Familiekiko harremana sustatzen da, genero berdintasunerako baloreetan modu bateratuan lan egiteko.

Horiek, eskolak izan beharko lituzkeen oinarri minimo batzuk lirateke. Hala ere, beharrezkoa ikusten dut, horrekin aurrera egiteko, irakasleak trebatzea.

Argi dago, oinarri horiek, egunerokotasuneko bizitzan errespetatu beharrekok direla, baina horrez gain, badaude, norberaren ikasleekin, burutu daitezkeen beste noizbehinkako hainbat jarduera/joku ere:

- Goazen abestera: Ikasle bakoitzak gustuko duen abesti baten letra eramaten du klasera, baita entzun ahal izateko formatua ere. Balorazio bat egiten da letraren eta mezuaren inguruan, horrela, abesti batzuek transmititzen duten eredu estereotipatu eta sexistan oinarritutako mezuaren inguruan hausnartuko da.
- Nik jolasten dut, zuk jolasten duzu, berak jolasten du: Klasean, patioa berdintasunean elkarbanatzeko jardueren zerrenda bat burutzen da, ondoren patioa joan eta praktikan jarritz erabakitakoa. Hau, ondo legoke gainerako irakasleekin adostea eta klase guztietan burutzea, izan ere, patioa beste klaseko ikasleekin hainbanatzen da.
- Lanbidea: Klasean, internetik, zein egunkaritik ateratako lan eskaintza desberdinak aztertzen dira. Zein eskaintza den ikertzen da, nori dauden zuzenduta, eskaintzen diren ordu kopuruak, etab. Horrekin guztiarekin solasaldi bat burutuko da.
- Komunikabideak/hedabideak: Besteak beste, telebista, irratiko eta hedabideetako iragarki desberdinak ikertzen dira. Zein produktu eskaintzen da? Nor da anuntzioko protagonista? Galdera desberdinak egin daitezke, iragarkien inguruan eta bertan erabiltzen den estereotipo sexisten inguruan hausnartzeko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- AA.AA (2014). *Vivir en Igualdad. Guía didáctica de coeducación*. Malaga: Ayuntamiento de Malaga. Area de igualdad de oportunidades.
- Acuña Franco S. (2007). Orientación personal, académica y profesional no sexista. Nahiko Programa. *Emakunde*, 1-28.
- Alfonso P. eta Aguado J. P. (2012). Estereotipo y coeducación. *Consejo Comarcal de Bierzo. Departamento de Formación, Empleo, Desarrollo e Igualdad de Oportunidades*, 1-33.
- Espín López J. eta Rodríguez Moreno M. L. (1996). *Análisis de Recursos Educativos desde la Perspetiva no Sexista*. Barcelona: Laertes.
- García Fernández E. eta García Reyes I. (2004). Los estereotipos de mujer en la publicidad actual. *Cuestiones Publicitarias*, 9, 43-64.
- Instituto Nacional de Estadística (2016). *Salarios, ingresos, cohesión social. 2.1 Salario anual medio, mediano y modal. Salario por hora. Brecha salarial de género (no ajustada) en salarios por hora*. 2016-04-15ean hartuta hemendik:
http://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259925408327&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout
- Naciones Unidas (2001). *Situación de la mujer en el mundo, 2000, tendencias y estadísticas*. Nueva York: Naciones Unidas.
- Nuño, T. (2016). *Hezkidetza irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar. ebaluazioa, metodologia, edukiak, baliabide didaktikoak eta curriculum-materialak. Hezkidetza eta curriculum*. UPV/EHUko Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Masterra (Berezko titulua). Hezkuntza Aipamena. Argitaratu gabea.
- Sánchez Corralejo J. C. eta Sánchez Garrido D. (2008). Influencia de los estereotipos de género. *Sistema Sexo/Género*, 3, 1-6

ERANSKINAK

1. Eranskina. Galdera sorta

LANBIDEAK ETA ETORKIZUNEKO IKASKETAK: GALDEKETA

Izena:

Gurasoen/tutoreen lanbidea:

AUKERAK:

- Lehen Hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)
- Batxilergoa
- Erdi mailako gradua (zein?)
- Goi mailako gradua (zein?)
- Unibertsitateko ikasketak (zein?)
- Bestelako ikasketarik (zein?)

1.- Atsegin dituzu honako ikasgai hauek? Ordena itzazu 0tik 10era, 0k esan nahi du ez duzula batere gustuko eta 10ek oso gustuko duzula.

1.1 Arte Hezkuntza:

1.2 Gorputz Hezkuntza:

1.3 Balioak/Erljioa:

1.4 Hizkuntzak: Euskara eta Euskal Literatura:

1.5 Hizkuntzak: Gaztelania eta Literatura:

1.6 Hizkuntzak: Atzerriko Hizkuntza:

1.7 Matematika:

1.8 Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera:

2.- Zein lanbide izan nahi dut nagusitzen naizenean? Aukeratu hiru gustukoena eta hiru desatseginenak eta ordenatu.

MEDIKUA	MATEMATIKARIA	FISIKARIA	KIMIKARIA
HISTORIALARIA	GEOLOGOA	BIOLOGOA	FILOLOGOA
FARMAZIALARI	ARKITEKTOA	INGENIARIA	INFORMATIKARIA
ENPRESARIA	ABOKATUA	KAZETARIA	EKONOMILARIA/KON TABLEA
ALBAITARIA	IRAKASLEA	GIZARTE LAGUNTZAILEA	NEKAZARIA
IRUDI ETA SOINU PRODUKTOREA	LOGOPEDA	OPTIKARIA	ADMINISTRATZAILEA
DENDARIA	KIROL MONITOREA	ELEKTRIKARIA	MEKANIKOA
TURISMO GIDARIA	ILE APAINZAILEA	MUSIKARIA	DANTZARIA

ATSEGINENAK:

1- _____

2- _____

3- _____

DESATSEGINENAK:

- 1- _____
- 2- _____
- 3- _____

3.- IDAZLANA: Deskribatu zure burua 20 urte barru, horretarako zure egun arrunt bat kontatuz, esnatzetik berriro ere lokartu arte. Nola biziko zara? Zein da, gaur egun, zure proiektua?

Gaur... _____

MARRAZTU 20 URTE BARRUKO ZURE AUTORRETRATOA




4.- Zein maiztasunekin egiten dituzu ondoko jarduerak?

Inoiz ez Noizbehinka Askotan Ez dakit

- Programa informatikoa instalatu
- Sare sozialetan ibili
- Otordua prestatu
- Egunkaria/aldizkaria irakurri
- Botoi bat josi
- Arropa lisatu
- Etxe-tresnak, jostailu elektronikoak, irratia eta abar konpondu
- Eguraldia aztertu (kanpoko tenperatura, hezetasuna etab.)
- Ohea egin
- Erratza edo xurgatzailea erabili
- Ume txikiak zaindu
- Etxeko hondakinak gaika sailkatu edo dagokion zakarrontzian botatu.

2. ERANSKINA. Horma-irudia



3. ERANSKINA. Lanbideen zerrenda

- Irakaslea
- Garbitzailea
- Ile-apaintzailea
- Dendaria
- Informatikoa
- Abokatua
- Medikua
- Nekazaria
- Artista
- Zientzialaria
- Kazetaria
- Ekonomialaria
- Kirol monitore
- Elektrikari
- Gidaria
- Polizia